

THINK TANK

Kultura politiko berriaren inguruko deliberazio prozesua: 13. Lan dokumentua

KULTURA POLITIKO BERRIRAKO DELIBERAZIO TALDEA: URTEBETEKO IBILBIDEA ETA ETORKIZUNERAKO IRIZPIDEAK

(2021eko ekainaren 16a)

Sarrera

2021eko ekaina mugarrria izan da kultura politiko berriaren inguruko deliberazio taldean. Urtebeteko ibilbidearen ebaluazioa egin ondoren, taldeak 2021-2023 epe berrirako oinarriak ezarri ditu.

Dokumentu honetan lanketa honen oinarrian egon diren hiru ekarpen jaso dira:

- a) Ebaluazio txostena irakurri ondoren taldekideek eginiko ekarpenak
- b) Xabier Barandiaranek partekatu dituen fase berriaren oinarriak
- c) Aurreko biak kontuan izanik ekaineko saioan zehar partaideek esandakoak

Ebaluazioaren ondorengo ikasketak

Gaiei dagokionez, taldekide batzuk orain arte landutako kontzeptuen inguruan ekarpena egin dute. Kontzeptu hauetako batzuk kuestionatu egin dituzte eta beste batzuk sakontasun gehiagoz lantzeko beharra azpimarratu dute:

“ Hitz batzuk oso errepikakorrak eta esanahi oso urrikoak iruditu zaizkit [konplexutasuna, sistemikoa, esperimentazioa...]. Dagoeneko modu automatikoan bezala errepikatzen dira, gainera. Horietako hitz batzuen aldekoa naiz, baina komeni da modu analitikoan lantzea, bestelako ideia, praxia edota egiteko moduekin alderatzea, eta egiatan ezberdintasunak ondo definitu eta bere inplikazio kulturelei buruz hitz egitea”

“Kultura Politiko Berria eta Lankidetzazko Gobernantza – Kontzeptualizazioa: “abiapuntuko” bi kontzeptu gako hauen ulermen partekatua eta definizio adostua zehaztearen beharra (ekintza zentratzeko eta aurrera begirako hausnarketa ondo bideratzeko)”

Think Tankaren metodologiari dagokionez, partaide batzuk ekintzarako gehiegizko joeraren inguruko kezka azaldu dute:

“Ekintza, esperimentazioa eta halakoak gauzatu beharrari buruzko ideia batzuk sarri errepikatzen dira. Nik dakidala horretarako gune asko daude, gero eta gehiago, eta kezkatuko ninduke Think Tanka horretara lerratuko balitz”

“Ulertzen dut batzuk prozesuaren bigarren zatian erosoago sentitu izana, baina hori gauza bat da, eta bestea da hori ote den Think Tankaren eginkizuna. Era batera edo bestera, Think Tank honen izaerari, zentzuari eta helburuari buruz ditugun zalantzak argitu beharko genituzke”

“Balioespenetan agerikoa de argi daukagula Think Tankaren deliberazioaren helburua: hausnarketa, kogenetazioa eta ekintzarako joera. Baina, hori horrela izanik lau

taldeentzat, nire buruari galdetzen diot ea Kultura Politiko Berriko talde honek agian ez ote lukeen arreta gehiago lehenetsi beharko hausnarketan, ekintzan baino. Izaera ezberdina dute lau taldeek. Nire ustez, talde honen anbizioak egunerokotasunetik urrunago egotea eskatzen dio lehen fase hauetan”

Beste batzuek aldiz jakintza sorrera prozesuan ekintza txertatzea Think Tankaren balioetako bat bezala ikusi dute:

“Deliberazioaren bitartez ezagutza ko-sortzen jarraitu behar dugu, baina taldeko norbaitek idatzi zuen bezala, praktikarako saltoa eman behar dugulakoan nago”

“Mantentzen bada lotura aberasgarri eta berritzaile hori proiektuen eta gogoetaren artean, urrats esanguratsuak espero daitezke kultura politiko berriaren sorreran”

“Adituen parte-hartzetik lortu dudan errendimendua ez da espero nuena. Askoz ere interesgarriagoa iruditzen zait erakundeetan metatutako esperientziari berriz heltzea eta teknikoki baliozkotzea, ekintza lankidetzazko gobernantzaren ardatzen inguruan antolatzeke, eta, oro har, aurrerapenak eta hutsuneak ikusarazteko. Lankidetzazko gobernantzaren kontzeptualizazio praktikoa eta sendoa –aldundiaren praktikara errotuta- landu behar da”

Bestalde, hausnartutakoa ekintzara eramateko orduan lankidetzazko sustatzeko zenbait lan-talde eratu dira, hauek ia urtebetez mantendu direlarik. Hauek inguruko iritziak dira ondorengoak. Alde batetik talde hauen inguruko arazo bat azaleratu da:

“Azpitaldeek fragmentazioa ekarri dute (aurreko dokumentuetan jasota)”

Bestalde, azpitalde hauen ekarpena ere aitortu da:

“Azpi-taldeekin oso gustura gaude. Egia da azpi-taldearen arteko loturak landu behar direla (uste dut horrek ere ekintzarekin dauden loturak ikusaraziko dituela)”

“Deliberazio prozesuan talde batzuk jakintza teorikoa sortzen dute eta beste batzuk praktikara zuzenduriko jakintza, eta hor dago gure balio erantsia. Atal desberdinetan eragiten ari gara eta atal hauek osotasun baten parte dira. Honek gure talde egiturarekin bat egin dezake eta emankorra izan (lan dokumentuetatik)”

2021-2022 faserako oinarrizko irizpideak

Xabier Barandiaranek 2021-2023 eperako ondoren azaltzen diren ardatz nagusiak aurkeztu ditu. Hemen jaso den informazioaz gain, ardatz bakoitza lantzeko arduradunak nor izango diren azaldu du. Irizpide hauek berdina dira Think Tankeko lau deliberazio taldeetarako.

a) Think-Thank-aren gobernantza

Think-Thank-ak zuzendaritza talde bakarra edukiko du aurrerantzean. Koordinazio taldea desagertu egingo da eta Koordinazio taldea eta talde eragilea talde bakar batean uztartuko dira.

b) Think-Thank-aren hausnarketa, ikerketa eta lanketa akademikoa

Think-Thank-aren garapena ikerketa ekintza metodologian oinarrituta dago. Think-Thank-a esperientziazko gune zabala da eta esperientziazko horren erdigunean dago ezagutza berria eragile ezberdinekin sortu eta zabaltzea. Horretako funtsezkoa da, Think-Thank-a, sorkuntza

akademikoaren bultzatzaile bilakatzea eta, baita ETORKIZUNA ERAIKIZ, ikerketa nahiz hausnarketa estrategiko ezberdinen erdigune bilakatzea.

- c) Zabalkundea eta gizarteratzea

Etorkizuna Eraikiz Think-Thank-ak egiten duen lana gizartearen aurrean balioan jarri behar da eta bestalde, Think-Thank-a (talde ezberdinetan parte hartzen duten gizarte eragileetatik haratago), gizarte eragile ezberdinekin eta herritarrekin agenda politiko berriari buruz hausnarketa egiteko gune bihurtu behar da.

- d) Think-Thank-aren lan metodologia

Think-Thank-aren lan metodologia ikerketa ekintza izanik talde guztietan lan prozesu bera jarraitzea komeni da, berau ondorengo pausoak emanaz gauzatuko delarik: (1) ekintzaren helburuak finkatu, (2) oinarriko kontzeptualizazioa adostu, (3) ekintzaren diseinua eta garapena eta ebaluaketa.

Taldearen hausnarketa Think Tankaren etorkizunari buruz

Ondorengo lerroetan taldearen hausnarketa jasotzen da aurreko ataletan jasotako gaien inguruan. Eztabaida gehien sortu duena lan-metodologia izan da, ondorioz atal berezian jaso dira ekarpen hauek.

Think-Thank-aren lan metodologia

Ebaluazioan esandakoen osagarri ondorengoak aipatu dira:

- a) Taldearen aniztasuna nabaria da eta teoria eta praktikarekiko desberdinak gara
- b) Azpitalde baten barruan ere hizkuntza desberdinak hitz egiten ditugu, paradigma desberdinetatik abiatzen gara
- c) Konplexutasuna kudeatzen jakin dugu elkarrekin lan egiteko
- d) Jakintza sortu dugu, negoziatu eta jakintzen erreperitorio bat eskaini dugu
- e) Gure misioa kontzeptualizazio sendoa edukitzea da, joku-zelai komuna
- f) Epe laburrean hausnarketa lehenetsi daiteke eta epe luzeagoan ekintzara jo
- g) Orain dikotomia moduan azaltzen direnak (hausnarketa/ekintza), hasieran ondo gaituta genituen
- h) Talde honentzat bi proiektu proposatzen dira: alde batetik lankidetzazko gobernatzaren mapa bat osatzea, bestetik, proiektu konkretu batzuk hautatu eta deliberazioan landutako ideiak bertan gauzatzea
- i) Jadanik aritu gara proiektu batzuk hautatu eta deliberazioan landutakoak bertan gauzatzen: Aurrerabide, Badalab, ArantzazuLab
- j) Ekintzak ez du zertan "proiektuak" izan beharrik
- k) Etorkizuna Eraikiz bera izan daiteke deliberazio talde honentzat erreferentziatzeko ekintza
- l) Think Tanka bera esperimentatzeko balioko digun prototipo bat da
- m) Beste proiektu batzuetan eragin baino, prozesua bera tangibilizatu dezakegu. Ari gara eragiten, kontua da: nola neurtu dezakegu hori?
- n) Subjektibotasuna gaituta eta kategoria "errekonozibleen" baitan neurtu behar dugu egiten duguna
- o) Egiten duguna kategoria "errekonozibleen" baitan neurtzea oso zaila da. Objektibatzeko sistema ezin da ebaluazio sistema tradizionala izan, adierazle hibridoak beharko ditugu

Aurreko ataletan jasotakoez gain, Think Tankaren inguruan ondorengoak ere aipatu dira:

- a) Desoreka dago Think Tankean dugun anbizioa eta ditugun baliabideen artean
- b) Inkonformismoa beharrezkoa da, insatisfakzioa ez da gauza berdina
- c) Liburuak fase hau itxiko du, ondorengo fasekoa Think Tank findua izango da
- d) Lankidetzazko gobernantzaren gaia Europan indarra hartzera doa, Gipuzkoan aurre hartu behar genuke eta erreferente moduan azaldu
- e) Formatu digitalak eragina izan du taldearen eraketan, prozesu mistoetara jo beharko genuke

Aurreko ideietatik abiatu eta iraileko proposamena prestatzen joateko, ondorengoak jaso dira:

- a) Taldeak azaldu duen teoria eta kontzeptu argien beharri erantzuteko lehen pausoa taldeak idatziko duen liburuko kapitulu teorikoa izan daiteke
- b) Kapitulu horretan oinarrituz, glosario bat txertatu daiteke liburuan
- c) Azpitaldeak ez dago modu egonkorrean mantendu beharrik